



## BURUNTZALDEKO IBILBIDEEN XVI. EGUNA

Aurten ere bueltan da Buruntzaldeko Ibilbideak proiektua. Lehiatzeko ez den eta edozein publiko motarentzat egokia den jarduera fisikoa egiteko eta Buruntzaldea eskualdeko eta bere landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera dugu. Bidezidorrak eta bideak ditugu (bost ibilbide daude aukeran), landako paisaiatik barrena paseoz gozatzeko, belardiak eta basoak zeharkatuz eta baserri, baseliza, karobi eta, natura nahiz kultura aldetik, interesgarriak diren beste leku batzuetara hurbilduz.

Herrietan ibilbide-zati bakoitzaren inguruko trazatuak, profilak eta distantziak erakusten dituzten panelak daude. Bideetan, berriz, norabideak eta distantziak markatzen dituzten geziak eta zuinak. Seinale horiek guztiak udalerrri bakoitzaren identifikazio-koloreak aintzat hartuz ipinita daude (Lasarte-Oria, urre zaharra; Urnieta, berdea; Usurbil, laranja eta Andoain, urdina); hala, seinale bat bidean ikusten dugunean zein ibilbidetan gauden jakingo dugu.

Zehazki, aukeran dauden **ibilbideak ondokoak dira:**

- **ANDOAIN – LASARTE-ORIA.** Buruntza mendia zeharkatuz edo gailurra eginda. Koloreak, urdina eta urre zaharra; 7,9 km-ko luzera du; oinez soilik egin daiteke eta mendiko oinetakoa beharrezkoa da.
- **ANDOAIN – URNIETA.** Koloreak, urdina eta berdea; 4,8km-ko luzera du; oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa da.
- **ANDOAIN – USURBIL.** (Andatzatik barrena). Koloreak, urdina eta laranja; 14,9km-ko luzera du (luzeena da); oinez soilik egin daiteke eta mendiko oinetakoa beharrezkoa da.
- **LASARTE-ORIA – URNIETA.** Koloreak, urre zaharra eta berdea; 3,9km-ko luzera du; oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa da.
- **LASARTE-ORIA – USURBIL – AGINAGA.** Koloreak, urre zaharra eta laranja; 9km-ko luzera du (Santuenetik barrena Aginagako Mapil ingururaino); oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa da.

Buruntzaldeko 2024-2025 ikasturterako planean aurreikusten den moduan, aukera horiek guztiak ezagutarazteko modua emango du Buruntzaldeko Ibilbideen egunak: aurtengoan, urriaren 20an (igandea) izango da, goizeko 08:00etatik 14:00etara.

**Buruntzaldeko Ibilbideen XVI. Eguna:**

**EGUNA:** 2024ko urriaren 20a, igandea

**ORDUTEGIA:** 08:00 – 14:00

**KONTROLAK ETA ANOAK:** herri bakoitzean kontrol postuetan anoa puntuak egongo dira:



Urnietan: Herriko plazan

Lasarten: Elizatze plazan

Andoainen: Herriko plazan

Usurbilen: Santueneako bidegurutzean eta Aginagako Mapil baserriaren ondoan

**\*Oharra:** aurten ez da ur botilarik banatuko, beraz, nork bere botila eraman beharko du. Ibilbideetan zehar hainbat iturri daude, bete ahal izateko.

**LAGUNTZEKO: Navi Ruta izeneko aplikazioa dago,** telefono mugikorrenzat egokia dena; honen bidez Buruntzaldeko ibilbideetako edozein egiterakoan, sistemak modu jarraituan emango duen informazioa (kokapena, jarraitu beharreko norabidea, interes-guneak...) jaso ahal izango da. Aplikazioa deskargatzeko eta ibilbide bakoitza aktibatzeke udalerrri bakoitzean jarriak dauden paneletan jarritako QR kodeak eskaneatu beharko dira edota herri bakoitzari dagokion klabea ipini. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, aplikazio hori lehendik deskargatua dutenek berriz instalatu beharko dute, egin zaizkion berrikuntzak direla eta.

Andoain: 125

Lasarte: 123

Usurbil: 126

Urnieta: 124

Ohi bezala, autobus zerbitzua ere martxan egongo da: 12:00etan aterako da lehenengo zerbitzua Aginagan (Ezpaldiko gasolindegian) eta azkena, 14:00etan, toki berdinean.

Autobusak egingo duen ibilbidea: Aginaga (Ezpaldiko gasolindegia), Usurbil (San Ignazio biribilgunea), Lasarte-Oria (Dorretzeko biribilgunea), Andoain (Goikoplaza atzealdea) eta, azkenik, Urnieta (Kiosko geltokia).

Autobusen ordutegiak herri bakoitzeko geltokietan ipiniko dira: [Autobusaren ibilbidea eta ordutegia](#)

**Antolakuntza:** Buruntzaldeko udalen kirol zerbitzuak (Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil).

#### **Laguntzaileak:**

Euskalduna Mendigoizale Elkartea (Andoain).

Ostadar S.K.T, mendizaleen eta ipar-martxa sailak (Lasarte-Oria).

Super Amara

**Arduradun nagusia:** USURBIL

**Informazio gehiago:** Buruntzaldeko kiroldegietara deituta.

Andoain: 943 30 01 47

Lasarte-Oria: 943 37 61 82

Urnieta: 943 00 83 28

Usurbil: 943 37 24 98